



# Hondakin arriskutsuen ekoizleei ezarritako baldintzak eta betebeharrak

1. Hondakin Arriskutsuen Ekoizle Txikien kasuan, Hondakinen Ekoizpen eta Kudeaketaren Erregistroko Hondakin Arriskutsuen **Ekoizle Txikien atalean** iraungo badute, enpresak bere horretan eutsiko die sortzen dituen hondakin arriskutsuen izaerari eta ezaugarriei, erregistroan inskribatzeko deklaraturakoari jarraikiz, bai eta hondakinok manipulatu eta aldi baterako gordetzeko baldintzei ere, betiere **gehienez 10.000 kg/urte** hondakin arriskutsu sortzeko mugarekin.
2. Hondakin Arriskutsuen Ekoizleen kasuan, Hondakinen Ekoizpen eta Kudeaketaren Erregistroko Hondakin Arriskutsuen **Ekoizleen atalean** iraungo badute, enpresak bere horretan eutsiko die sortzen dituen hondakin arriskutsuen izaerari eta ezaugarriei, erregistroan inskribatzeko deklaraturakoari jarraikiz, bai eta hondakinok manipulatu eta aldi baterako gordetzeko baldintzei ere, betiere **gutxienez 10.000 kg/urte** hondakin arriskutsu sortzeko betebeharrarekin.
3. Zentro ekoizlearen instalazioetan edo prozesuetan aldaketaren bat egin nahi bada, eta aldaketa horrek eragina izan badezake hondakin arriskutsuen izaeran edo horiek sortzeko, manipulatzeko, gordetzeko edo kudeatzeko baldintzetan, aldaketa hori jakinarazi eta arrazoitu beharko zaio Ingurumen Organo honi, eta organo horrek egoki baderitzo, Hondakinen Ekoizpen eta Kudeaketaren Erregistroko **inskripzioa zabaldu edo aldatu** beharko da.

Hondakin Arriskutsuen Ekoizle Txikien kasuan, edozein hondakin arriskutsutan, urtean sortutako kopuruan aldaketarik badago, baina guztira sortutako hondakin arriskutsuen kopurua ez bada 10.000 kg/urte baino handiagoa, eta aldaketak ez badu eraginik aipatu alderdietako ezeinetan, ez dago zertan jakinarazi, ez eta inskripzioa zabaldu edo aldatu ere.

4. **Hondakin ez-arriskutsuen kudeatzailea izanez gero**, ezingo ditu bere instalazioetan onartu, hondakin ez-arriskutsuen kudeaketa-jardueraren esparruan, indarrean dagoen Europako hondakinen zerrendan arriskutsutzat sailkatutako hondakinak (Batzordearen 2014ko abenduaren 18ko Erabakia (2014/955/EB), zeinaren bidez aldatzen baita hondakinen zerrendari buruzko 2000/532/EE Erabakia, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2008/98/EE



Zuzentarauaren arabera), eta une oro bete beharko ditu ingurumen-organok honek hondakin ez arriskutsuen kudeaketa-jardueran aritzeko indarreko ingurumen-araudiaren arabera beharrezkoa den baimenean ezarri dituen betekizunak eta baldintzak.

Hondakin arriskutsuak hautemango balitu, organo hau berehala jakinaren gainean jarriko du, hondakinon kantitatea, jatorria eta mota zehaztuta.

- 5. Hondakin arriskutsuak ibilgailu propioekin errepidez garraiatzen badira**, ontziratze eta biltze baldintzek eta erabili beharreko garraiobideek salgai horien errepideko garraioari buruz indarrean dagoen legerian ezarritako xedapenak bete beharko dituzte.

Ebazpen honetan jasotako hondakin arriskutsuak salgai arriskutsutzat jotzen badira Salgai Arriskutsuen Errepideko Nazioarteko Garraioari buruzko Europako Akordioaren (ADR) B. eranskinaren arabera, eta hondakin horiek ibilgailu propioekin garraiatzen badira, ontziratze eta biltze baldintzek eta erabili beharreko garraiobideek salgai arriskutsuen errepideko garraioari buruz indarrean dagoen legerian ezarritako xedapenak bete beharko dituzte.

Nolanahi ere, aipatutako xedapenak 1.1.3.6.2 atalean (kopuruengatik salbuespen partziala garraio-unitate bakoitzeko) eta 3.4 kapituluan (bilgarriagatik salbuespenak kopuru mugatueta) ezarritakoetara mugatu ahal izango dira, puntu horietan jasotako zehaztapenak betetzen badira.

Garbitu gabeko ontzi hutsen kasuan, salbuespenak ezarri ahal izango dira 1.1.3.5 atalaren arabera, baldin eta arau horretan jasotako arrisku guztiak desagerrarazteko behar diren neurriak hartu direla egiaztatzen bada.

- 6. Berariaz debekatzen da sortzen diren hondakin mota desberdinak elkarrekin edo beste hondakin nahiz efluente batzuekin nahastea**; hondakinak jatorritik bertatik bereiziko dira, eta horiek bildu eta biltegitzako bide egokiak jarriko dira, nahasketarik ez izateko.
- 7. Hondakin arriskutsuak biltegitzako eremuak edo eremuak** lurzoru estankoa izango dute. Egoera fisiko likidoan edo oretsuan edo duen inpregnazio-mailagatik, hondakin arriskutsuek isurketak edo lixibiatuak sor baditzazkete, orduan, kubeta edo bilketa-sistema egokiak beharko dira, gerta daitezkeen isurtzeak kanpora atera ez daitezkeen. Bilketa-sistemek independenteak izan behar dute hondakin mota hauetarako: isuriren bat gertatu eta nahasiz gero, arriskugarritasuna handitzea edo kudeaketa zailteza dakartenetarako.
- 8. Hondakin arriskutsuak pabiloiaren kanpoaldean pilatzen badira**, aterpea izan beharko dute, hondakin arriskutsuen bolumena ez dadin hazi euri-urengatik, edo kutsatzaileak herresta ez eramateko;



aterpeak, gainera, ontziak eta hondakin arriskutsuak eguzki-erradiaziotik babestu beharko ditu.

9. **Hondakin arriskutsuak biltegitzeko eremuan edo eremuetan produktu kimikoak biltegitzekoari buruzko araudian ezartzen diren zehaztapenak bete beharko dira**, eta haien arriskugarritasuna kontuan hartuta, aplikatu behar diren jarraibide osagarriak ere bai. Gainera, hondakina beti egon beharko dira higiene- eta segurtasun-baldintza egokietan biltegituta, beren eskuetan dauden artean.
10. Uztailaren 20ko 833/1988 Errege Dekretuak 13. artikuluan ezarritako segurtasun-arauak bete beharko dituzte **hondakin arriskutsuak dauzkaten ontzi edo ontzikiek**, eta itxita egon beharko dute kudeatzaile baimenduari eman arte, isurita edo lurrunduta gal ez daitezen.
11. Aurreko atalean aipatzen diren ontziek **etiketatuta egon beharko dute**, eta etiketak argia, irakurtzeko modukoa eta ezabaezina izan beharko du; etiketa uztailaren 20ko 833/1988 Errege Dekretuak 14. artikuluan horretarako adierazitako jarraibideen arabera izango da.
12. **Sortutako hondakin arriskutsuen izena eta kodeak nahitaez erabili beharko dira** erregistroetan eta kontrol-dokumentuetan, hondakin horiek identifikatzeko.

Hondakin arriskutsuaren izaerari eta arriskugarritasun-ezaugarriei buruzko irizpideak ezartzen dira honako hauetan: Europako Hondakin Zerrenda, 2014ko abenduaren 18ko Batzordearen erabakiaren bidez argitaratua, zeinaren bidez aldatu egiten baita hondakinen zerrendari buruzko 2000/532/EE Erabakia; eta 1357/2014/EB Erregelamendua, Batzordearena, 2014ko abenduaren 18koa, zeinaren bidez ordeztzen baita Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2008/98/EE Zuzentarauaren, hondakinei buruzkoaren eta zuzentarau jakin batzuk indargabetzekoaren, III. eranskina. Aipatutako irizpideak kontuan hartuta, orain arte ez-arriskutsu gisa kudeatutako hondakinetako bat arriskutsutzat joko balitz, Hondakinen Ekoizpen eta Kudeaketako Erregistroko (Hondakin Arriskutsuen Ekoizle Txikien atala) inskripzioa berritzeko eskatu beharko litzateke, hondakin horri hondakin arriskutsu berri gisa alta emateko, kudeatzeko bide egokia justifikatu ondoren.

13. **Kudeaketa-modu lehenetsiak** sortutako hondakinak **birgaitzea, berreskuratzea edo berrerabiltzea** dakartenak izango dira, lagatzearen edo ezabatzearen aurretik.
14. **Hondakin sanitarioak sortuz gero**, hondakin sanitario espezifikoak (II. taldea) manipulatzeko, ontziratze, etiketatzeko eta biltzeko baldintzak, eta hondakin zitostatikoenak, nahiz haiek prestatzen erabilitako edo kontaktuan egondako material guztiaren baldintzak (III.a taldea), edo III.c eta III.d taldeetako hondakin sanitarioenak,

Euskal Autonomia Erkidegoan Hondakin Sanitarioak Kudeatzeari buruzko martxoaren 3ko 21/2015 Dekretuan eta hura garatzeko ondorengo araudietan ezarritakoak izango dira.

15. **Hondakin arriskutsuak ezin izango dira sei hilabetetik gora biltegitatu**, ontziratzen eta biltegitatzen ez direnak salbu, hondakinok sortzen diren instalazioko deposituetatik zuzenean entregatzen zaizkiolako kudeatzaile baimenduari.
16. Hondakin arriskutsuak **kudeatzaile baimenduaren instalazioetara eraman aurretik**, nahitaezko baldintza izango da agiri baten bidez, hots, **tratamendu-kontratuaren** bidez, egiaztatzea kudeatzaile baimendu horrek hondakinak onartu dituela; agiri horretan hondakinak onartzeko baldintzak ezarriko dira, eta egiaztatu egingo da tratatu beharreko hondakin arriskutsuaren ezaugarriak administrazio-baimenarekin bat datozela.
17. Hondakin arriskutsuak lekualdatu aurretik eta, hala badagokio, horretarako egin beharreko **jakinarazpena aurretiaz** eginda dagoela, araudian zehaztutako moduan, **identifikazio-agiria bete beharko da** (kontrol- eta jarraipen-agiria zena) eta agiri horren ale bat garraiolariari emango zaio, eta zamarekin batera eraman beharko da jatorritik helmugaraino.
18. **Artxibo fisiko edo telematiko bat eduki beharko da**, non, ordena kronologikoan, hondakinen kantitatea, izaera, jatorria, helmuga eta tratamendu-metodoa jaso beharko diren; halaber, hala dagokionean, garraio-bidea eta jasotze-maiztasuna ere adierazi beharko dira.  
  
Artxibo kronologikoan, hondakinen ekoizpen- eta kudeaketa-lanen egiaztatze dokumentaleko informazioa sartu behar da.  
  
Informazioa artxibatuta egongo da hiru urtez, gutxienez.
19. Gainera, artxibo kronologikoa eskuratzeko moduan eduki beharko da, agintari eskudunek ikuskatu eta kontrolatu ahal izateko.
20. **Egiaztatu egin beharko da** hondakin arriskutsuak kudeatzaile baimenduaren instalazioetara eramateko **erabiliko den garraio-bideak betetzen dituela** horrelako gaiak garraiatzeko ezarritako **baldintzak**, indarrean dagoen legeriaren arabera.
21. **Atmosferara emisioak eginez gero**, instalazioko fokuetan atmosferara egiten diren emisioen mailek ezin izango dituzte ezin parametro kutsatzailetan gainditu atmosfera babesteko legeriak, oro har, eta kasuan kasuko jarduerarako berariaz eskatzen diren lizentziek eta baimenek ezartzen dituzten mugak.
22. **Jardunean sortutako efluente likidoek** organo eskudunak emandako isurketa-baimenean finkatutako baldintzak bete beharko dituzte.



23. Urtarrilaren 19ko 27/2021 Errege Dekretuaren bidez aldatutako Ekipamendu elektriko eta elektronikoen hondakinei buruzko otsailaren 20ko 110/2015 Errege Dekretuan xedatutakoaren arabera kudeatuko dira **ekipamendu elektriko eta elektronikoen hondakinak** –besteak beste, lanpara fluoreszenteak–.
24. Pilei eta metagailuei eta horien hondakinen ingurumen-kudeaketari buruzko otsailaren 1eko 106/2008 Errege Dekretuaren 3.o) artikuluan ezarritakoaren arabera **pilen, metagailuen edo baterien ekoizle direnen kasuan**, aipatu xedapenaren 4. eta 5. artikuluetan ezarritakoa bete beharko da.
25. Pilei eta metagailuei eta horien hondakinen ingurumen-kudeaketari buruzko otsailaren 1eko 106/2008 Errege Dekretuan, uztailaren 23ko 943/2010, uztailaren 24ko 710/2015 eta urtarrilaren 19ko 27/2021 errege-dekretuen bidez aldatutakoan, ezarritakoari jarraikiz kudeatu beharko dira pilen eta metagailuen hondakin hauek: **16 06 01\*** (metagailuak eta berunezko bateriak), **16 06 02\*** (Ni-Cd-ko metagailuak eta bateriak), **16 06 03\*** (merkurioa duten pilak) eta **20 01 33\*** (aurreko kodeetan zehaztutako pilak, metagailuak eta bateriak, baldin eta hondakinok etxebizitza partikularretan, saltokietan, bulegoetan, zerbitzuetan eta horien antzeko lekuetan sor badaitezke, eta aipatu pilak edo metagailuak dituzten hondakin sailkatugabeak). Hondakin-kode horiek Europako Batzordearen 2014ko abenduaren 18ko Erabakian zehazten dira (2014/955/EB), eta erabaki horren bidez aldatu zen hondakinen zerrendari buruzko 2000/532/EE Erabakia, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2008/98/EE Zuzentarauaren arabera.
26. Ekipamendu elektriko eta elektronikoen hondakinei eta pilen eta metagailuen hondakinen kudeaketaz arduratzen dira **ekoizlearen erantzukizun hedatuko sistemak**, lehen aipatutako araudi espezifikoaren babesean eratuak, eta **16.** eta **17.** neurriak aplikatuko zaizkie hondakinoi, baldin eta enpresak zuzenean kudeatzaile baimenduari entregatzen badizkio.
27. **Olio erabilia sortuz gero**, industria-olio erabilien kudeaketa arautzen duen ekainaren 2ko 679/2006 Errege Dekretua aplikatuko da.
28. **Ekipamendu elektriko eta elektronikoen ekoizlea** den heinean, tresna elektriko eta elektronikoen hondakinei buruzko otsailaren 20ko 110/2015 Errege Dekretuaren 3. artikuluko h) apartatuan ezarritakoaren arabera, aipatutako xedapenaren 4. artikuluko d apartatuan eta II. kapituluan ezarritakoa bete beharko du.
29. **PCB duten edo eduki dezaketen gailuak** baldin baditu, nahitaez betetzekoak izango ditu abuztuaren 27ko 1378/1999 Errege Dekretuaren, poliklorobifeniloak, polikloroterfeniloak eta horiek dituzten gailuak ezabatu eta kudeatzeko neurriak ezartzen dituenaren, baldintzak eta errege dekretu hori aldatzen duen otsailaren 24ko 228/2006 Errege Dekretua. Hala, PCBren edukitza-aitorpena bidali



beharko du urtero, aitorpenean adierazitako urtearen hurrengoko martxoaren 1a baino lehen. Aipatu errege dekretuan arautzen den urtean behingo aitorpena aurkezteko betebeharra izango du ekoizleak PCB duten gailuen edukitzaile den bitartean.

30. **Aire girotua eta/edo hozteko ekipamenduak edo antzekoak instalatzeko, mantentzeko eta manipulatzeko jardueren kasuan**, bermatu beharko da teknikoki bideragarriak diren neurri guztiak hartzen direla, gailuon gas hoztaileen ihesak saihesteko eta atzemandako ihesak ahalik eta azkarren konpontzeko.
31. Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2009ko irailaren 16ko 1005/2009 (EE) Erregelamenduan, **ozono-geruza agortzen duten substantziei buruzkoan**, zehaztutako substantzia arautuak eta Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2014ko apirilaren 16ko 517/2014 (EE) Erregelamenduan, berotegi-efektuko gas fluordunei buruzkoan, definitutako gas arautuak dituen bitartean, aipatutako erregelamenduetan ezarritako baldintzak bete beharko ditu.
32. **Balio-bizitzaren amaieran dauden ibilgailuak hartzeko instalazio gisa jarduten den bitartean**, apirilaren 13ko 265/2021 Errege Dekretuak, balio-bizitzaren amaieran dauden ibilgailuei buruzkoak, eta abenduaren 23ko 2822/1998 Errege Dekretuaren bidez onartutako Ibilgailuen Erregelamendu Orokorra aldatzen duenak, adierazitakoa bete beharko du, eta organo honen aurrean egiaztatu beharko du ibilgailu horiei emango zaien helmuga eta arau horren II. eranskineko 1. apartatuan ibilgailuok hartzeko instalazioetarako ezartzen diren baldintzak betetzen direla.
33. **Hondakin arriskutsuak desagertu, galdu edo ihes eginez gero**, berehala jakinarazi beharko zaio gertatutakoa Ingurumen Jasangarritasuneko Sailburuordetzan.
34. **Inskribatu beharreko zentroan garatzen den jarduera** ekainaren 25eko 4/2015 Legearen (abenduaren 26ko 209/2019 Dekretuak aldatuaren) I. eranskinean (lurzorua kutsa dezaketen jardueren zerrendan) **identifikatutako lurzorua kutsa dezaketen jardueren artean badago**, jarduera kokatuta dagoen lurzoruen egoerari buruzko aurretiazko txosten bat igorri beharko zaio Ingurumen Jasangarritasuneko Sailburuordetzari, **gehienez ere hilabeteko epean**, eta INGURUNET aplikazioaren bidez aurkeztuko da, telematikoki, IPS prozedura:

<https://www.euskadi.eus/baimena/lurzorua-kutsatzea-saihestu-eta-kutsatutakoa-garbitzea/web01-s2ing/eu/>.

Txosten hori Lurzorua kutsatzea saihestu eta kutsatutakoa garbitzeko ekainaren 25eko 4/2015 Legea garatzen duen abenduaren 26ko 209/2019 Dekretuaren VII. eranskinean ezarritakoaren arabera egin beharko da, eranskin horretan zehazten eta doitzen baitira



txostenaren irismena eta edukia, jardueraren ezaugarri zehatzak eta kokapena kontuan hartuta.

35. Era berean, Lurzorua kutsatzea saihestu eta kutsatutakoa garbitzeko ekainaren 25eko 4/2015 Legea garatzen duen abenduaren 26ko 209/2019 Dekretuarekin bat etorriz, enpresak **jarduera kokatuta dagoen lurzoruaren egoerari buruzko txostenak bidaliko dizkio** Ingurumen Jasangarritasuneko Sailburuordetzari, **dekretu honen 19. artikuluan eta VII. eranskinean zehaztutako maiztasunarekin eta irismenarekin**, aurretiazko txostena aurkezteko ezarritako bide beretik.
36. Nahitaez bete beharko dira lurzoruak kutsatzea saihestu eta kutsatutakoa garbitzeko ekainaren 25eko 4/2015 Legeak zehazten dituen lurzoruak kutsatu dezaketen jarduerari aplikagarri zaizkien betekizunak, bereziki, **jarduera edo instalazioa behin betiko utzi ondoren lurzoruaren kalitate-adierazpenaren prozedura** abiaraztean.
37. **Eraispeneko lanak eginez gero**, eraikuntzako eta eraispeneko hondakinak sortzea eta kudeatzea arautzen duen otsailaren 1eko 105/2008 Errege Dekretuan ezarritakoa hartuko da aintzat.
38. Era berean, eraikuntza- eta eraispene-hondakinak sortzea eta kudeatzea arautzen dituen ekainaren 26ko 112/2012 Dekretuarekin bat etorriz, eraitsi beharreko **instalazioak lurzoruak kutsa dezakeen jarduera bati badagozkio, ezin izango dira eraispene-, desegite- eta/edo desmuntatze-lanak hasi** Ingurumen Jasangarritasuneko Sailburuordetza honen **aldez aurreko onespenik gabe**, behin egiaztatuta eraispene-proiektuak barne hartzen dituela material eta hondakin abandonatuen inbentarioa eta karakterizazioa, irismen beharrezkoarekin eta lurzoruaren arloko erakunde egiaztatu batek eginga, eta eraikinen eta instalazioen balizko kutsaduraren ikerketa bat nahiz garbiketa-lanak eta hondakin-kudeaketa egokiak izatea ziurtatzeko ingurumen-kontrol eta -jarraipeneko plan bat.
39. **Amiantoa duten hondakinak hautemanenez gero**, amiantoak ingurumenean sortzen duen kutsadura saihestu eta gutxitzeari buruzko 108/1991 Errege Dekretuan (3. art.) ezarritako betekizunak bete beharko dira. Horrez gain, amiantoa duten hondakinak kudeatzeko egingo diren manipulazioak 396/2006 Errege Dekretuan ezarritako aginduen arabera burutuko dira; dekretu horren bidez ezarri ziren amiantoarekin lan egiterakoan segurtasun- eta osasun-arloan bete behar diren gutxieneko baldintzak.
40. Lurzoruak kutsatzea saihestu eta kutsatutakoa garbitzeko ekainaren 25eko 4/2015 Legearen 22. artikuluan ezarritakoa betetz, **lurra hondeatzeko edo mugitzeko eragiketetan lurra kutsatuta dagoen zantzuak antzemanenez gero**, horren **berri eman beharko zaie** kasuan kasuko **udalari** eta **autonomia-erkidegoko ingurumen- organoari**, hartu beharreko neurriak zehaztu ditzan.



41. Lurzoruak kutsatzea saihestu eta kutsatutakoa garbitzeko ekainaren 25eko 4/2015 Legearen 22. artikuluan ezarritakoa betez, **lurra kutsatuta dagoen zantzuak antzemanaz gero**, horren **berri eman** beharko zaio berehala **autonomia-erkidegoko ingurumen-  
organoari**, hartu beharreko neurriak eta horiek betearazteko betebeharra duten pertsona fisiko edo juridikoak zehaztu ditzan.
  
42. Azkenik, **nahitaez bete beharko dira** hondakin arriskutsuen ekoizpenari buruz Hondakin eta Lurzoru Kutsatuei buruzko uztailaren 28ko **22/2011 Legean**, uztailaren 20ko 833/1988 Errege Dekretuan eta horren ondorengo aldaketetan eta aplikatzekoak diren gainerako arauetan ezartzen diren xedapen guztiak. Euskal Autonomia Erkidegoko Hondakinen Ekoizpen eta Kudeaketaren Erregistroan hondakin arriskutsuen **ekoizle gisa inskribatuta dauden enpresei soilik aplikatuko zaie minimizazio-azterlanak lau urtean behin aurkezteko betebeharra.**